

INAUTERIAK 2011 - LEIOA

Martxoak 4:

LEIOAKO XXI. MOZORRO LEHIAKETA

OINARRIAK

HERRIKO PERTSONA GUZTIEK PARTE HARTU AHAL IZANGO DUTE. HELDUEN LEHIAKETA. 18 urtetik gorakoentzat.

MAILAK. Indibiduala / Taldeak.

Taldean mailan parte hartu ahal izateko, koadrilek bost lagunez egon behar dute osatuta gutxienez, eta euren mozorroek harremana izan beharko dute elkarrekin.

IZEN-EMATEA. Parte hartu nahi duten pertsonak egun berean eman beharko dute izena, Ikea Barri plazako eszenatokian.

Izena emateko orduan, zenbaki bana emango zaie parte-hartzaileei, eta zenbaki hori ondo ikusteko moduko leku batean eraman beharko dute, mozorroari lotuta.

DESFILEA. Martxoaren 4an, denek hartuko dute parte desfilean, epaimahaiak mozorroak epaitu ahal izan ditzaiz. Desfilea 22:00etan hasiko da, Ikea Barri plazako eszenatokian.

SARIAK. Sariak ondoko hauek dira (parte-hartzaile batek ere ezin izango ditu bi sari jaso).

HELDUEN LEHIAKETA.

Indibiduala

1# 180 € eta garaikurra.

2# 100 € eta garaikurra.

3# 60 € eta garaikurra.

Taldeak

1# 400 € eta garaikurra.

2# 250 € eta garaikurra.

3# 150 € eta garaikurra.

SARI-BANAKETA: Martxoaren 4an, 23:30ean, Ikea Barri plazan.

Epaimahaiak zalantza, ustekabe edo oinarri hauen interpretazio oro ebatzi beharko du, eta epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da, bere irizpidea uneoro gailenduko delarik.

OHARRAK. Lehiaketa honetan parte hartuz gero, oinarri guztiak onartu behar dira.